

## **UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2014ko IRAILAREN 24an IZANDA- KO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-**

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño Etxebarrieta (Hezkuntza Arloko zinegotzia)
- Udal Euskaltegiko ordezkaria
- Gernikako AEK-ko ordezkaria
- Berritzeguneko ordezkaria
- Allende Salazar ikastetxeko ordezkaria
- San Fidel Ikastolako ordezkaria
- Seber Altube Ikastolako ordezkaria
- Barrutia Ikastetxeko ordezkaria
- Gernika Institutuko ordezkaria
- Barrutialde Institutuko ordezkaria
- Helduen Heziketarako Ikastegiko ordezkaria

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria I)

- Ezin etorria zuritu du Mertzede ikastetxeak.

Hasiera ordua: 9,30

Amaiera ordua: 11,00.



**1.- 2013-2014 IKASTURTEAN IKASLE ETORKINEI  
ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN  
EMAITZAK AZTERTU ETA 2014-2015 IKASTURTERAKO  
ESKAINITZA ZEHAZTEA.**

Gernikako AEKko ordezkariak 2013-2014 ikasturteko taldeen txostenak banatu eta ikastaroaren balorazio orokorra egin du:

- Bi talde aritu izan dira; 8 ikasle “0” mailan eta beste 8 ikasle hobekuntza mailan.
- Parte-hartzeari dagokionean, gogotsu aritu izan ziren (“0” mailan 2 baja eta “hobekuntza” mailan baja bat) eta asistentzia ona izan da talde bietan.
- Aurreko ikasturtean bezala, emaitzei eta helburuei dagokionean, lorpenak hobekuntza mailan (5etik 3,5) hasiera mailan baino (5etik 2,75).
- GUGAZTE proiektuarekiko loturaren berri eman du, ikastaroko ikasleak proiektu horretako ekintzetan partaide izan direlako (tailerrak).

Hausnarketa egin ondoren, **hauxe erabaki da:**

**1).- Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, hasiera maila eta hobekuntza maila).**

**2).- Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 3. Ikasle bakoitzaren fitxa:**

- **Izen-abizenak.**
- **Jatorria eta udalerrira noiz etorria.**
- **Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)**
- **Kontaktorako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.**

**2).- Egunak, bi astean, aurkezpen egunean finkatuko dira. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu.**

**3).- Ikastaroa San Fidel ikastolan garatuko da (lehenengo urtea), 2009-11-05eko bilkuran erabakitakoari jarraituz.**



## **2.- GURASOEI EUSKALDUNTZERAKO DOAKIEN ESKAINTZA AZTERTU**

Batzordeko idazkariak argitu du iragan astean bidali direla zentroetara kanpainaren zabalkunderako fotokopiak, lehenbailehen banatzeko eskaera eginik, matrikulatzeko epe muga urriaren 10a izango delako.

AEKko ordezkariak taldeei buruzko txostenak banatu ditu eta aurreko ikasturteko balorazio orokorra egin du: guztira 40 bat guraso. Kopuru hori da urte askotan mantendu izan dena (30 eta 40 artekoa). Salbuespena izan zen 2012-2013 urtekoa, oso arrakastatsua: 70 guraso.

Azpitarratu egin du gurasoen artean etorkinen portzentajea nabarmena izan dela eta hiru taldetan aritu izan direla, goizean, arratsaldean eta iluntzean.

Batzordeko idazkariak adierazi du aurreko ikasturteko guraso batzuk (talde oso bat) hurbildu direla Euskara Zerbitzura fitxak banatu orduko ikastaroaz galdetzen.

### **Erabakia:**

**1).- Matrikula gisa 60 € kobratuko dira, matrikularen %25. Gainerakoa Udalak jarriko du.**

**2).- Zorrotz jokatu da azpitarratuz titulaziorako ikastaroa ez dela, hastapenerako baino.**

**3).- Epe muga matrikulatzeko: urriak 10 (plaza mugatuak izango dira).**

**4).- Ikastaroaren ordu kopurua 120 ordu, urritik ekainera. Ordutegia ikasleen gogoetara egokitze ahalegina egingo da.**



**3.- ESKOLAZ-KANPOKO KULTUR EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK: 2013-2014 IKASTURTEKOAK ORDAINTZEKO IRIZPIDEAK ONARTU ZIREN, BAINA EKINTZA BEREZIEARAKO EZ DAGO ZEHAZTUTA ETA ERABAKI BEHAR DA.**

Batzordeko idazkariak azaldu du 2013-2014 ikasturteko diru laguntzak ordaintzeke daudela uztailaren 30ean onartu delako Udal aurrekontua. Gainera, 2013ko irailaren 25eko batzarrean hauxe erabaki zela argitu du:

“1).- Diru laguntzetarako kopuru osoaren %60 diru laguntza orokor modura eman: gutxienekoa mantendu (400 €) eta gainerakoa ikasle kopuruaren arabera.

2).- Diru laguntzetarako kopuru osoaren %40 diru laguntza berezietarako erabili, hau da, Udal Eskola Kontseilutik koordinatzen diren jardueretarako.

3).- Aipatu %40 horren banaketa nola egin erabakitzeko hurrengo batzar bat egingo du Udal Eskola Kontseiluak, 2014ko aurrekontuaren berri izan eta eskolaz kanpoko kultur ekintzak sustatzeko diru laguntzetarako zenbat burutu jakin dezagunean.”

Hausnarketa egin ondoren, bi proposamen azaldu dira:

1).- %40 hori ere ikasle kopuruaren arabera banatzea. Beraz, kopuru osoa, %100, ikasle kopuruaren arabera banatu, ekintza berezietarako kopuru finko barik.

2).- Gutxieneko kopurua finkatzea zentro guztientzat (400 euro) eta gainerakoa ikasle kopuruaren arabera banatzea.

**Erabakia:**

**Udal Eskola Kontseiluak, aho batez, bigarren aukerari eutsi dio, hau da, gutxieneko kopuru bat finkatu zentro guztientzat (400 euro) eta gainerako guztia ikasle kopuruaren arabera banatzea.**



**4.- ZENTROETAKO “EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO PLANAK” GARATZEARREN 2013-2014 IKASTURTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIAREN EGOKIPENAK AZTERTZEA.**

Batzordeko idazkariak informazioa eskaini du deialdiarekin bidalitako araudia dela eta. Gogorarazi egin du diru laguntzak banatzeko irizpideak mantentzen direla, bai lagundutako ekintza zerrenda bera eta banaketarako baremoak eta zatiketa ere.

Ez da proposatu aldaketarik.

Beraz, hauxe erabakia da:

**1).- Diru laguntza deialdia egitea 2014-2015 ikasturterako eta eskabideak aurkezteko hilabeteko epea finkatzeko, deialdiaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatuta.**

**2).- Diru kopuru orokorra 14.000 €koa izango da. Beraz, araudiaren bosgarren arau berezia honela geratuko da:**

**a).- 700 € gutxienekoa, zentro bakoitzari.**

**b).- 6.100 €ikasle kopuruaren arabera banatzeko.**

**c).- Gainerakoa (3.000 €) egitasmoen balorazioaren arabera banatzekoa.**

**3).- Gutxieneko aurrekonturako 2.000 € finkatu eta gehieneko aurrekonturako 6.000 €**



**5.- UDALETIK ESKOLA MUNDURAKO DAUDEN KANPAINA ETA ZERBITZUEN BERRI EMATEA ETA GAINERAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA.**

Deialdiarekin bidalitako eranskinak aztertu dira, hurrengoak azpimarratuz:

**a). GU ERE BERTSOTAN EGITASMOA IKASTETXEETAN.-**

Batzordeko idazkariak gogorarazi egin du 2014ko ekainaren 11ko batzarrean Udal Eskola Kontseiluak hartutako erabakia eta azaldu egin du Gu ere bertsotan egitasmoa irakaskuntza zentroetan zelan gauzatuko den:

IKASTETXEA	MAILA	TALDE KOPURUA	ORDUAK ASTEAN	AURREKONTUA
Gernika BHI	BBT taldea	2	2	2.294,00 €
San Fidel ik.	6.maila	2	1	1.860,00 €
San Fidel ik.	BBT taldea	1	1	1.147,00 €
Mertzede Ikastetxea	6.maila	1	0,5	930,00 €
Seber Altube	6.maila	2	1	1.860,00 €
Allende Salazar	5 eta 6.maila	3	3	5.580,00 €
Barrutia eskola	6.maila	2	1	1.860,00 €
				<b>15.531,00 €</b>

Beraz, Barrutialde Institutuak uko egin deutso egitasmoan parte hartzeari. Bestalde, gaurko batzarrean ebaztekoa da diru laguntza zelan aplikatu zentro bakoitzaren faktura murrizteko. Horri lotuta, hiru proposamen aurkeztu dira:

- 1.- Udalak emandako diru laguntzaren portzentajea aurrekontu osoarekiko kontuan hartu eta portzentaje bera aplikatu zentro bakoitzaren aurrekontuari murrizteko. Gainerakoa izango da Bertsozale elkarteak fakturatuko duena.
- 2.- Diru laguntza aplikatzeko, ikasle kopuruaren arabera jokatu.
- 3.- Aukera mistoa: erdia 1. aukeraren arabera eta beste erdia bigarren aukeraren arabera.

**Erabakia:**

Aho batez onartu da Gu ere bertsotan egitasmorako emango den diru laguntza lehenengo proposamenaren arabera aplikatzea, hau da, Udalak emandako diru laguntzaren portzentajea aurrekontu osoarekiko kontuan hartu eta portzentaje berbera aplikatu zentro bakoitzaren aurrekontuari murrizteko. Hona hemen eredu (kontuan hartuta Udalak 9.300 euro bideratuko dituela eta zentro bakoitzaren aurrekontua aipatzen dena izango dela):

ZENTROAK	2014-15 IKASTURTEAN BAKOITZAREN AURREKONTUA	BAKOITZARI %60a APLIKATU (murrizketa)	BAKOITZARI BBek FAKTURATZEKOA
Allende Salazar Ikast.	5.580,00	3.344,00	2.236,00
Barrutia Ikastetxea	1.860,00	1.114,50	745,50
Gernikako Institutua	2.294,00	1.374,00	920
Mertzedede ikastetxea	930,00	553,00	377,00
San Fidel ikastola	3.007,00	1.800,00	1.207,00
Seber Altube Ikastola	1.860,00	1.114,50	745,50
GUZTIRA	15.531	9.300	6.231

**b).- EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALAGOA.**- 2014ko Euskarazko Produktuen Katalogoaren zabalkunderako kanpaina iazkoaren parekoa izango ei da eta zentroetan fotokopiak banatzeko bidaliko dira. Aurten ere, Euskara Sailaren asmoa jostailu saltokiekin harremanak landu eta kanpaina berezia burutzea da. Katalogoa bera ez da banatuko, baina bai egingo da zabalkundea internet bidez bertara jotzeko.

**Erabakia:**

Euskarazko Produktuen katalogoari buruzko informazioa LH eta DBHko ikasle guztiei banatuko zaie (orri berezia), ploter bereziak jarriko dira jostailu dendetan eta euskarazko produktuetan %5eko deskontua izango da kanpainako saltokietan.



**c).- EUSKARA ZINE ARETOETARA.**- Batzordeko Idazkariak Tinko Elkartearen eta Irudi Biziak enpresaren eskaintzen berri eman du eta gaineratu zentro bakoitzak askatasunez aukera ditzakeela bata edo bestearekin zein biekin egokien jotzen dituzten filmak.

**d).- GAZTEZULO ALDIZKARIAREN PROPOSAMENA.**- Aurreko ikasturtean izandako esperientziari buruzko txostenaren emaitzak aztertu dira eta oso positibotzat jo ere. Euskara Arloak eskaintza hori 2014-2015 ikasturterako errepikatzea erabaki du eta DBHko 4. mailako ikasleei zuzentzea. Hemen ere aurrekontuaren arabera jokatu da (harpidetza sei hilabetekoa edo gutxiagokoa, partidaren arabera).

**Erabakia:**

**1).- Erabakia: Gaztezulo aldizkariak egindako eskaintzari eustea, datorren urteko aurrekontuaren aurreikuspenaren arabera (1.500 euro).**

**2).- Egitasmo honi lotuta hurrengo faseak betetzea zentro bakoitzean:**

- Gaztezulo aldizkariko arduradunak zuzenduko dira zentroetara, urrian gutunak gurasoei bideratzeko.
- Azarotik martxora bitartean doan banatuko zaie ikasleei, kasu bakoitzean zentroak finkatu moduan.

**3).- Azken fasea, inkesta eta harpidetza sustapena, aldizkariak berak bideratu beharko du bere baliabideekin.**

**6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Galdetu egin da gaika egiten den batzarrerako data jarri den. Horren ildotik, hauxe erabaki da: gaika egiten den batzarra urriaren 8an egitea goizeko 9,30etik aurrera (deialdia egingo da).

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Hezkuntza Arloko zinegotzia

Batzordeko Idazkaria,

Iñaki Gorroño Etxebarrieta

Bittor Zarrabeitia Bengoa

